

MARIA GOIRI, MARTINA CASIANO ETA MICAELA PORTILLA ERAIKINETAN IKERKETA ESPARRUAK ESLEITZEKO DEIALDI PUBLIKOAK

Ohiko galderen erantzunak (2016/01/27an eguneratua)

Seiurteko bizia

- *Eskaera egiteko inprimakian seiurteko biziak adierazi behar dira. Zer dira zehazki seiurteko biziak?*

Seiurteko bizia da azken sei urteetan aitortu dena. Beraz, orain dela zazpi urte aitortu zen seiurteko bat ez da seiurteko bizia, eta ez da hartuko kontuan.

IKERTALDEKO KIDEAK

- *Nortzuk hartuko dira ikertaldeko kideetat 2010-2014 aldian?*

Deialdiak dioen moduan, aipatutako aldiko edozein unetan ikertaldeari lotuta egon diren pertsona guztiak hartuko dira ikertaldeko kideetat; hau da, ikertaldeko kideak ez dira bakarrik taldea eratu zenean parte hartu zuten ikertzaileak.

- *Sartu ahal da eskaeran BERC bati eta UPV/EHUri atxikitako ikertzaile bat?*

Deialdiko 8. oinarriak azken paragrafoan dioenaren arabera, BERC bati atxikitako pertsonak ez dira hartuko ikertaldeko kideetat. Hala ere, galderan esandakoaren ildotik, BERCak ez badio esleituko esparrurik BERCari atxikitako pertsonari, gomendatzen da horren berri ematea eskaerari erantsi behar zaion premien memorian.

- *Zer gertatzen da iherketa jarduna Leioan egiten duten baina, eskolak Donostian edo Gasteizen ematen dituztelako, Gipuzkoa edo Arabako Campusari atxikita dauden ikertaldeko pertsonekin?*

Deialdiko 8. oinarriak azken paragrafoan dioenaren arabera Bizkaiko Campuseko ikastegiei atxikitako ikertaldeko kideak baino ez dira hartuko kontuan Maria Goiri eta Martina Casiano eraikinetarako, eta Arabako Campuseko ikastegiei atxikitakoak Micaela Portilla eraikinerako.

- *Pertsona batzuk doktoregaiak eta ikertzaileak izan dira 2010-2014 aldian, baita irakasleak ere. Egoeraz aldatzen joan dira, alegia. Eskaeran zein adierazi beharko litzateke?*

Aipatutako aldiko uneren batean ikertaldeko kide izan diren pertsonak tarte horretako baldintza laboral eta akademikoen arabera hartuko dira kontuan; horrek esan nahi du 8.1 oinarriko b) letran aipatutako baldintzak bete behar dituztela.

Egoera laborala eta/edo akademikoa aldatu duten pertsonen kasuan, 2010-2014

aldian izan dituzten egoera guztiak adierazi beharko dira eta, horretarako, behar beste aldiz agertu beharko dira eranskinean.

- *2010-2014 aldian doktorea ez zen bekadun bat, gaur egun doktore bada, doktore moduan hartuko da kontuan? Ala ez-doktore moduan?*

Aipatutako aldiko uneren batean ikertaldeko kide izan diren pertsonak tarte horretako baldintza laboral eta akademikoen arabera hartuko dira kontuan; horrek esan nahi du 8.1 oinarriko b) letran aipatutako baldintzak bete behar dituztela.

Argitalpenak eta doktorego tesiak

- *Kontuan hartuko al dira taldean 2010-2014 aldian egon diren pertsonen defendatutako doktorego tesiak eta argitara emandako lanak?*

Aipatutako aldiko edozein unetan ikertaldeko kide izan diren pertsonak hartuko direnez kontuan, pertsona horien argitalpenak ikertaldearen argitalpentzat hartuko dira, pertsona ikertaldeko kide izan zen urtea eta lana argitara eman zuen urtea berbera ez izan arren.

Argitalpenaren urtea aipatutako aldiko urteren bat izan behar da; hau da, 2015. urteko argitalpen bat ez da hartuko kontuan ikertaldearen argitalpen gisa deialdi honetarako.

Tesia ikertaldean sartu baino lehenago defendatu zuten pertsonen kasuan, aipatutako aldiaren barruan defendatu ziren tesiak hartuko dira kontuan deialdi honetarako.

Doktorego tesiei dagokienez, 2010-2014 aldian DEFENDATUTAKOAK baino ez dira adierazi behar?

Bai. Deialdiaren I. eranskineko 3. oinarriaren arabera (1.1 atala, a) letra) 2010-2014 aldian defendatutako tesiak baino ez dira hartuko kontuan.

Ikerketa proiektuak

- *Ikertzaile nagusia egon bada ikertaldean aipatutako aldiko uneren batean, taldean sartu aurretik eman zitzaizkion proiektuak hartuko al dira kontuan?*

Aipatutako aldiko edozein unetan ikertaldeko kide izan diren pertsonak hartuko direnez kontuan, pertsona horiek zuzendutako ikerketa proiektuak ikertaldearen proiektutzat hartuko dira, aipatutako aldiko urteren batean emandakoak badira.

- *2010-2014 aldian emandako proiektuak baino ez dira hartuko kontuan, ala baita 2010. urtea baino lehenago eman eta aipatutako aldian "bizirik" egon zirenak?*

Deialdietan kontuan hartuko diren proiektuak dira 2010-2014 aldiko bost urteetakoren batean emandakoak. Beraz, 2010. urtea baino lehenago emandako proiektuak kanpoan geratzen dira.

- **ZUZENKETA:** *Nola zenbatuko da taldeak laguntzeko deialdien bidez lortutako finantziazioa?*

Deialdi honetan ez da hartuko kontuan ikertaldearen finantziazioa, ez direlako agertzen III. eranskineko deialdien zerrendan.

➤ *INTERREG proiektuak Europako proiektutzat hartzen al dira?*

Ez dira hartuko kontuan. INTERREG proiektuen tramitazioa berezia da baina, edonola ere, ez dira hartuko kontuan deialdi honetan ez direlako agertzen III. eranskineko deialdien zerrendan.

➤ *Pirinioetako Lan Elkartearen proiektuak zer dira, autonomia erkidegoko proiektuak ala Europako proiektuak?*

Ez dira hartuko kontuan. Aipatutako proiektuen tramitazioa berezia da baina, edonola ere, ez dira hartuko kontuan deialdi honetan ez direlako agertzen III. eranskineko deialdien zerrendan.

➤ *Nola zenbatuko dira ikertzaile nagusiaren ikerketa proiektuak ikertzaile hori beste ikertalde, sail, erakunde edo unibertsitatekoa bada eta eskatzaileak ikertaldeko hida baino ez badira?*

Ikertaldekoa den ikertzaile nagusiaren proiektuak baino ez dira hartzen kontuan. Ikertaldeko kideek parte hartzen duten proiektuak ez dira hartzen ikertaldearen proiektutzat pertsona horiek ez badira ikertzaile nagusiak.

Eskaera egiteko inprimakia

➤ *Eskaerako "Ikerketa taldeko hida datuak" atalean, azken hiru zutabeetan, adierazi behar da zein izan zen hida bakoitzaren arduraldia (ehunekoak) 2011, 2012 eta 2013. urteetan. Zergatik ez dira agertzen 2010 eta 2014. urteak? Harrituta nago; izan ere, deialdiko 6.3 oinarriaren arabera, kontuan hartu behar dira ikertzaileek ikertaldearekin duten loturaren iraupena zehazteko.*

Akats bat da. Begi bistakoa denez, 2010-2014 aldiko bost urteak agertu behar dira. Zuzendu dugu akatsa eskaera egiteko inprimaketan.

➤ *Eskaerako "Ikerketa taldeko hida datuak" atalean, noren datuak adierazi behar dira? 2010. urtean taldeko hida zirenenak? Taldea aldatu egin da: beste pertsona batzuk sartu dira, egoera aldaketak egon dira, etab. Sartu ahal da beste errenkada bat hideren baten egoera aldatu denean?*

Eskaeran agertu behar dira 2010-2014 aldiko uneren batean ikertaldeari lotuta egon diren pertsona guztiak.

Egoera laborala eta/edo akademikoa aldatu duten pertsonen kasuan, 2010-2014 aldian izan dituzten egoera guztiak adierazi beharko dira eta, horretarako, behar beste aldiz agertu beharko dira eranskinean.

Aipatutako aldiko uneren batean ikertaldeko hida izan diren pertsonak tarte horretako baldintza laborala eta akademikoen arabera hartuko dira kontuan; horrek esan nahi du 8.1 oinarriko b) letran aipatutako baldintzak bete behar dituztela.

➤ *Arduraldiaren zein ehuneko adierazi behar da eranskinean?*

Kontratuan agertzen dena, langile ez-iraunkorren kasuan; eta irakats betebeharren arabera, langile iraunkorren kasuan.

Aipatutako aldiko uneren batean ikertaldeko kide izan diren pertsonak tarte horretako baldintza laboral eta akademikoen arabera hartuko dira kontuan; horrek esan nahi du 8.1 oinarriko b) letran aipatutako baldintzak bete behar dituztela.

- *Eskaeran sartu behar al dira 2010-2014 aldian ikertaldeko kide izateari utzi zioten pertsonak? Eta 2015. urtean utzi ziotenak?*

Aipatutako aldiko uneren batean ikertaldeko kide izan diren pertsona guztiak hartuko dira kontuan. Hau da, 2010-2014 aldiko uneren batean taldeko kide izan ziren eta kide izateari aldi horretan utzi zioten pertsonak, bai eta kide izateari 2015. urtean utzi ziotenak ere (2010-2014 aldia amaitu eta gero). Esandakoa 8.1 oinarriko b) letran aipatutako baldintzak betetzen dituztenei baino ezin zaie aplikatu.

- *Ikerbasqueko ikertzaile seniorrak UPV/EHUko langile iraunkortzat hartzen al dira?*

Ez dagoenez zehaztuta IKERBASQUEko langileen kontratua nolakoa izan behar den, denak hartuko dira kontuan.

- *Arduraldiei dagokienez (arduraldi osoarekiko parekotasuna), Eusko Jaurlaritzaren taldeetarako eskaerak egiterakoan erabili zena erabili behar dugu edo beste bat?*

Eskaera egiteko inprimakian adieraziko den informazioak edozein iturri izan dezake, Eusko Jaurlaritzaren taldeetarako eskaerak egiteko erabili zena barne. Informazio hori alderatu egingo da Ikerketaren arloko Errektoreordetza bere kabuz kalkulatzeko ari denarekin, esparruak erabiltzeko eskaerak egin dituzten taldeetako ikertzaile nagusiei bidalitako kalkuluak oinarri hartuta.

- *Taldeko kideztat hartu behar al dira taldean 2015. urtean sartu eta hurrengo urteetan ere taldean egoten jarraituko duten pertsonak?*

Ez. 1. galderaren erantzunean azaldu den moduan, 2010-2014 aldiko uneren batean taldean egon diren pertsonak baino ez dira hartuko kontuan. 2015. urtea ez da sartzen.

- *Eskaerako "Talde finkatuaren datuak" atalean, doktorego aurreko kontratuetan, sartu behar al dira doktorego aurreko behadunak?*

Bai. Deialdiko 8.1 oinarriko b) letrak dioten moduan, doktorego tesia egiten ari diren (tesia inskribatuta) pertsonak kontuan hartuko dira tesi zuzendaria taldeko kide bada.